

NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO
LEHENDAKARIAREN EBAZPENA

Mankomunitateko Lehendakariak, 2024ko irailaren 19an, honako ebazpena onartu du:

2024/6 EBAZPENA

2022ko abenduaren 19ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagozkion Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko euskara teknikari lanpostua merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia, enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 legean xedatutakoaren arabera.

Aurkeztutakoen behin betiko zerrenda onartu zen Iparraldeko Euskara Mankomunitateko web orrian.

Merezimendu-lehiaketa amaituta, Iparraldeko Euskara Mankomunitateko web orrietan argitaratu zen puntuaziorik handiena lortu zuen izangaia izendatzeko proposamena, deialdian eskatutako baldintzak betetzen zituena eta deitutako plaza-kopuruan sartzen zena.

Deialdian eskatutako agiriak aurkeztu ondoren eta bertan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuta, bidezkoa da bera izendatzea eta plaza esleitzea.

Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau,

EBAZTEN DUT

1.- Felix Altzelai Iriarte lan-kontratuko langile finko izendatzea, euskara teknikari lanpostua betetzeko.

2.- Euskara teknikari lanpostu hutsa esleitzea (plantilla organikoaren 3. zenbakia)

- Izen-abizenak: Felix Altzelai Iriarte.
- Plaza: Euskara Teknikaria
- Maila: B
- Araubide Juridikoa: lan-erregimenean kontratatua
- Hizkuntzak: euskara C1/EGA nahitaezkoa
- Lanaldia: %100

3.- Izendatutako izangaia ebazpenaren egunetik hilabeteko epean hartu beharko du lanpostua, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 foru legearen 6.4 artikuluaaren arabera.

Egun horretan, eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostua hartzen ez badu toki-erakunde deitzaileko lan-kontratuko langile finko izateko eskubide guztiak galduko ditu.

4.-Ebazpen hau, dagozkion ondorioak izan ditzan, Nafarroako Aldizkari Ofizialen argitaratzea baita Iparraldeko Euskara Mankomunitateko web orrian. Ebazpen honen aurka nahi izanez gero, honako errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze helegitea erabakia hartu duen organoaren aurrean, erabakia hartu eta hurrengo egunetik hilabete bateko epean

b) Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Nafarroak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko órgano eskudunaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Leitzan, 2024ko irailaren 19an.



Aintzane Arraiza Begiristain

Lehendakaria